




## **Historian lehen aldiz, 3 milioi biztanle baino gehiago gara Euskal Herrian**

2006. urte honetan, historian lehen aldiz, 3 milioi biztanleren muga gainditu dugu Euskal Herrian. Estatistika institutu ofizialek eskainitako datuen arabera<sup>1</sup>, 3.005.670 BIZTANLE bizi gara gaur egun EUSKAL HERRIAN.

### **Beste muga historiko batzuk:**

-  **XIX. mendean, 90eko hamarkadaren amaieran, milioi 1 biztanleko muga gainditu zen Euskal Herrian.**
-  **XX. mendean, 60ko hamarkadan, berriz, 2 milioi biztanleko muga gainditu zen.**
-  **Eta, XXI. mendeko lehen hamarkada honetan 3 milioiko muga gainditu dugu.**

### **Azken mendean biztanleria ia hiru aldiz halakotu da Euskal Herrian**

1897. urtean milioi bat pasatxo biztanle ginen (1.054.769), eta 109 urte geroago, 3 milioi biztanle gara Euskal Herrian (3.005.670).

Grafikoan ikus dezakegun bezala, Euskal Herriko biztanleriak goranzko joera etengabea izan du aurreko mende osoan. Dena den, goranzko joera duen lerro horren malda bereziki handia izan da garai batzuetan eta ia laua besteetan.

1960. urte arte, biztanleriaren hazkunde iraunkorra izan da Euskal Herrian; XIX. mende amaieratik urte horretara, milioi bat pertsona gehiago bizi zen egungo Euskal Herrian, 1.982.995. Baina hazkunderik esanguratsuen urte horretatik aurrera gertatzen da; 60ko hamarkadan, milioi erdi biztanle gehiago zituen Euskal Herriak, eta 1970. urtean jadanik 2.565.377 ziren. Hazkunde horren atzean, hainbat arrazoi daude: biztanleriaren bizi-baldintzak hobetu ziren, bizi-itzaropena luzatu zen, 50-60 hamarkaden inguruan *baby-booma* gertatu zen eta, batez ere, Euskal Herriaren garapen industrialaren ondorioz, immigrazio prozesu handia izan zen.

Ondoren, 1981. urte arte goranzko joerak bere horretan jarraitu bazuen ere, urte horretatik aurrera, hazkunde itzel hori eten egin zen; jaiotza kopuruak jaitsi egin ziren eta immigrazio uholdea eten; horrez gain, Euskal Herrikan kanpo joan ziren herritarrak etorri zirenak baino gehiago izan ziren.

Baina, 2000. urtetik aurrera biztanleriak berriz ere goranzko joera hartu duela esan dezakegu, ez 50eko, 60ko eta 70eko hamarkadetan bezain indartsu agian, baina hartua du. Hazkunde horretan, noski, zerikusi zuzena dute azken urteetan jasotako etorkin berriek.

[\(Ikus lehen grafikoa\)](#)

### **Euskal Herriko biztanle gehienak Bizkaian bizi dira. Herrialde hori eta Gipuzkoa handitu dira gehien azken mendean. Azken 25 urteetan, berriz, Lapurdi, Nafarroa Garaia eta Araba handitu dira gehien**

3 milioi biztanle horietatik gehienak Bizkaian bizi dira; zehazki, biztanleen herenak baino gehiago (%37,9) herrialde horretan bizi dira. Ondoren, bostetik bat inguru bizi da Gipuzkoan eta ia beste hainbeste Nafarroa Garaian (%23,0 eta %20,0, hurrenez hurren). Biztanle dezente gutxiago bizi dira gainerako 4 herrialdeetan; Araban %10,1, Lapurdin %7,6 eta, gutxien, Nafarroa Beherean %1,0 eta Zuberoan %0,5.

[\(Ikus bigarren grafikoa\)](#)

<sup>1</sup> Datuak behin-behinekoak dira. Iturria; biztanleria erroldak eta zentsuak (INE eta INSEE).

Goranzko joera etengabea izan dela esan aipatu dugu aurreko atalean, baina herrialde guztiek ez dute eduki joera bera. Hazkunde handiena batez ere Bizkaiak eta Gipuzkoak ezagutu dute (1897. urtetik . 2006 urtera, %291,0 eta %260,2 handitu da bi herrialde horien biztanleria, hurrenez hurren). Aldiz, Zuberoak eta Nafarroa Behereak biztanleria galdu dute (%37,0 eta %36,1, hurrenez hurren). Arabak, berriz, ia hirukoiztu egin du biztanleria, eta Lapurdik bikoiztu baino gehiago. Nafarroa Garaiak, azkenik, ia bikoiztu egin du.


Dena den, hori azken mendeko joera izan da; azken 25 urteak hartzen baditugu, joerak aldatu egin dira. Tarte horretan, biztanleria gehien irabazi duten herrialdeak Lapurdi, Nafarroa Garaia eta Araba izan dira (%20ko hazkundearen bueltan). Gainerako lau herrialdeek, berriz, biztanleria galdu dute azken 25 urteetan, batez ere, Zuberoak. Esan beharra dago, ordea, 2001. urtetik aurrera herrialde guztiek irabazi dutela biztanleria, Nafarroa Garaiak gehien, eta Lapurdik eta Arabak ere asko, eta gutxiago gainerakoek. Dirudenez, beraz, hiru herrialde horiek jasotzen dituzte etorkin berri gehien.

(Ikus hirugarren grafikoa)

Azkenik, esan behar dugu herrialdeen barnean ere bilakaera ez dela homogenea izan; zonalde batzuk gehiago hustu dira eta beste batzuk gutxiago. Adibidez, 1981. urtetik 2001. urte bitartean, biztanleria galdu dute Zuberoako eskualde guztiek eta Nafarroa Behereko gehienak. Gipuzkoan ere eskualde guztiek galdu dute biztanleria, Urola Kostak izan ezik. Bizkaian ere eskualde gehienek galdu dute biztanleria, Plentzia-Mungiak eta Durangaldeak salbu. Arabako eskualdeek, berriz, biztanleria irabazi dute, Trebiñuko konderriak eta Arabako mendialdeak izan ezik. Nafarroa Garaian ere, Iparraldeak eta Estellerriak biztanleria galdu dute, eta hegoaldeak, batez ere, Iruñerriak eta Tuter aldeak, biztanleria irabazi dute. Azkenik, Lapurdin eskualde guztiek biztanleria irabazi dute . (ikus infografian gehitu dugun eskualdekako mapa).

## INFOGRAFIA


### 1. Biztanleria. Euskal Herria 1977-2006



**ITURRI:** [www.datutalaia.net](http://www.datutalaia.net); biztanleria erroldak eta zentsuak (INE eta INSEE).

**OHARRA:** Zehaztasunetarako, ikus [www.datutalaia.net](http://www.datutalaia.net)-eko taularen oharra.


### 2. Biztanleriaren banaketa, herrialdeka. Euskal Herria, 2006 (%)



**ITURRI:** [www.datutalaia.net](http://www.datutalaia.net); biztanleria erroldak eta zentsuak (INE eta INSEE).

**OHARRA:** Zehaztasunetarako, ikus [www.datutalaia.net](http://www.datutalaia.net)-eko taularen oharra.


### 3. Biztanleriaren bilakaera, herrialdeka. Euskal Herria, 1877-2006 (%)



**ITURRI:** [www.datutalaia.net](http://www.datutalaia.net); biztanleria erroldak eta zentsuak (INE eta INSEE).

\* **Oharra:** 2006. urteko datuak erroldakoak dira, gainerakoak, zentsuetakoak. Zentsuak egin ziren urteak ez dagoz bat Ipar Euskal Herrian eta Hego Euskal Herrian. Zehaztasunetarako, ikus [www.datutalaia.net](http://www.datutalaia.net)

**4. Biztanleriaren hazkundera, eskualdeka. Euskal Herria, 1981-2001 (hazkundera %tan)**



:Talaiaitik:

**ITURRI:** [www.datutalaia.net](http://www.datutalaia.net); biztanleria erroldak eta zentsuak (INE eta INSEE).  
**OHARRA:** Zehaztasunetarako, ikus [www.datutalaia.net](http://www.datutalaia.net)-eko taularen oharra.

- Prentsa ohar hau egiteko erabili ditugun datu guztiak helbide honetan aurkituko dituzu:  
**[WWW.datutalaia.net](http://WWW.datutalaia.net)**
- **Datu Talaiak, Gaindegiako Estadistika Sailak**, Espainiako eta Frantziako estatuetaiko estatistika institutu ofizialek kaleratutako datuetan oinarrituta egin dituen homologazio estatistikoaren emaitza dira datu horiek.
- **Jatorrizko datuak:** Biztanleria zentsuak eta erroldak (EUSTAT, INE eta INSEE). Europako estatuetaiko datuak: EUROSTAT.

**Argibide gehiagorako edo  
Prentsa Ohar zaharrak hiru hizkuntzetan kontsultatzeko:**  
Euskal Herriko Datu Talaia  
[www.datutalaia.net](http://www.datutalaia.net)